



# BANDOA

## MARTXOAK 8, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO GREBA. EMAKUMEOK KALERA!

Iaz, 70 herrialde baino gehiagotan, emakumeek nazioarteko emakumeen grebarako deialdia zabaldu zuten, emakumeen kontra indarkeria eta desberdintasun molde ugari eragiten dituen munduaren aurrean.

Aurtengo martxoaren 8an, Emakume Langileen Nazioarteko Egunean, Euskal Herriko mugimendu feministak, sindikatuak eta hainbat eragile politikok bat egin dugu EMAKUMEOK PLANTO aldarriarekin, emakumeak mendean hartzen eta zapaltzen gaituen sistema kapitalista, arrazista eta heteropatriarkala salatzen.

Sistema honek sexuaren arabera lan-banaketa bultzatzen du, eta ezkutatu eta gutxietsi egiten ditu bai feminizatutako ogibideak, bai bizitzaren iraunkortasunarekin eta zaintzarekin lotutako lanak. Jada "ez gaudela krisian" esaten digute, baina erreproduzio sozialaren krisia erroturik dugu gurean. Bizitzaren prekarizazioa orokortzen eta larritzen ari da. Egoera honetan, bizitzen sostengua eta zaintza berriz ere etxean esku gelditu da, zehazki, emakumeek egiten dugun lan ikusezinaren esku.

Testuinguru honetan, hainbat indarkeria moldeak (sexista, arrazista eta klasista) zeharkatzen dituzte gure gorputzak; eta, gainera, hedabideek emakumezkoen irudiak sexu-objektu gisa erabiltzen dituzte, eta estereotipo sexistak sistematikoki zabaltzen dituzte.

Bazterketa prozesuen areagotzea bizi dugu. Jada gatazka ez da "dutenen" eta "ez dutenen" artean ematen. Egungo bazterketa prozesuak jatorria, sexua, arraza eta beste hainbat ezaugarrietan oinarritzen dira.

Horregatik guztiatik, Etxarri Aranazko Udalak bat egiten du martxoaren 8ko greba feministarekin, eta mugimendu feministak herrian antolatutako ekimenetan aktiboki parte hartzeko deia luzatzen dugu.

Etxarri Aranatz, 2018ko martxoaren 6an  
Alkateak: Eneka Maiz Ulaiar